



## Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2023ko otsailaren 7a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

# Jose Luis Otamendi

(Azpeitia, 1959)

Azpeitian jaio zen Jose Luis Otamendi 1959an eta bertan bizi da. Bigarren hezkuntzako irakaslea eta ibilbide luzeko poeta da.

### Landura



Euria egiten bizi, euria egiten bizi. Landura izatearen lokatzetan arakutzen du Jose Luis Otamendiren poemategi berriak. Mundu zahar baten amiltzea haztatzen du poetak eta behin asmatutako etorkizun puskez eta bizi duen sasoiak itaundu; noren alde ari den jendea lanean non, zerk egiten duen jendea herri, aspaldiko hitzetatik zeinek balio duen elkar ferekatzeko gaur. Gauza txikien uxarrean dabil —ahon gerez hezur bat—, samurtasunaren azal gordinez.

### Jose Luis Otamendiren argitalpenak

*Egunsenti biluzia* (1980)  
*Zainetan murrailak* (1987)  
*Poza eta gero* (1990)  
*Lur bat zure minari* (1995) **P OTA**  
*Bakarrik bahago neguan* (1998)  
*Euri kontuak* (1999)  
*Poesia kaiera* (2000)  
*Erlojuen mekanika* (2007) **P OTA**  
*Kapital publikoa* (2014) **P OTA**  
*Disoluzio agiriak* (2019) **P OTA**  
*Landura* (2022) **P OTA**

## Kritikak esandakoak

“31 poema dakartza eskutik Otamendik. Haietan nabarmentzen du nola edertasun globalak eta erosotasun lokalak minaren gainean eraikita dauden. Horren jakitun da autorea, eta zenbaitetan errudun sentipena nabari da poematan. “Erloju hila” edo “Bigarren loa” bezalako poematan goia jo du poetak. Bere lerroen zaleek egongela erosoan topatuko dute liburu honetan, argi zaharberritu batek eraldatua. Bere lerrorik inoiz irakurri ez dutenek euskal literaturako poema ederrenetako batzuk irakurtzeke dituzte. Bere antologia liburuari orrialde dezente erantsi beharko zaizkio...”

Jon Martin-Etxebeste / El Diario Vasco, 2022-09-24

“...Otamendiren poesiaren bereizgarri izaten jarraitzen baitute justizia sozialarekiko zein bidegabekeriaren aurkako senak, gizatasunak eta, batez ere, umildadeak. Behin eta berriz nabarmentzen da bere izaera diskretua maitatzeko, borrokatzeko, idazteko duen eran. Indibiduoaren eta kolektiboaren arteko dialektika horretan, garai berriek dakartzaten talketan murgiltzen da.

Laburbilduz, geruza ugariko poemak direla esan daiteke, hiztegi bereziki aberatsa baliatuta, egunerokotasuneko tonu arina erakusten dutenak, batetik, baina ideia sakon eta kezka filosofikoekin korapilatzen direnak aldiro, artefaktu konplexua jarriz irakurlearen esku artean. Askotan zail egiten da ehundura horretako maila guztietara iristea, izan landurak lausotzen duelako ulermena edo poema gehienek ez dutelako ideia edo gai bakarria gordetzen. Hala, eman dezake sentazioa nahas-mahas batena, poema bakoitzak poema asko biltzen dituenarena edota irudi dezake liburu osoa dela bere horretan poema bakar bat.”

Irati Majuelo / Berria, 2022-10-09

## Erabilitako iturriak

Literaturaen zubitegia

<https://zubitegia.armiarma.eus/?i=114>

Argia

<https://www.argia.eus/jose-luis-otamendi>

Susa

[https://susa-literatura.eus/idazleak/Jose\\_Luis\\_Otamendi](https://susa-literatura.eus/idazleak/Jose_Luis_Otamendi)

Auñamendi Eusko Entziklopedia

<https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/otamendi-jose-luis/ar-112909/>

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8624>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8627>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8631>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8632>